## 2024KO DEIALDIA, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN GIZARTE EKINTZA KOMUNITARIO ARLOKO DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAARAUBIDEAREN BIDEZ EMATEKO

Amorebieta-Etxanoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak eta Gizarte Ongizateko dirulaguntzetarako berariazko arauek sail honetako oinarri arautzaileak finkatzen dituzte, eta 2008ko abuztuaren 6ko 149. BAOn argitaratu ziren.

### LEHENENGOA: XEDEA ETA JARDUERA EREMUA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea gizarte ekintzaren arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei, baldin eta proiektu horien helburua bada autonomia pertsonala sustatzea eta mendetasun-egoerak, babesgabetasun-egoerak, bazterkeria-egoerak eta larrialdi-egoerak prebenitzea eta horiei erantzutea, edo berdintasunaren, kulturartekotasunaren, dibertsitate funtzionalaren, belaunaldi-aniztasunaren edo elkartasunaren arloko zeharkako politiketatik jarduten badute.

Erakunde bakoitzak proiektu bakarra eskatu ahal izango du, eta proiektu horretan jasotako jarduerak honako hauek izan daitezke:

- Deialdiaren xedeari lotutako jarduerak.
- Azterlanak eta ikerketak.
- Herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko proiektuak

Jarduerak eta sentsibilizazio eta kontzientziazio proiektuak Amorebieta-Etxanoko udalerrian garatu beharko dira, eta azterlanen eta ikerketen xedea Amorebieta-Etxanoko errealitate sozialari eta/edo zornotzarren gizarte-beharrei buruzkoa izango da.

Dirulaguntza emango zaie aurkeztutako proiektu espezifikoari zuzenean lotutako gastuei.

Erakundearen zeharkako gastuak edo mantentze-gastu arruntak proiektuaren zenbateko osoaren % 10eko mugarekin egotzi ahal izango dira: langileak (nominak, gizarte-segurantza, aseguruak, dietak...) eta gastu arrunta (lokalaren alokairua, garbiketa, hornidurak...).

Deialdi honen xedea ez da udalerritik kanpo eskainitako udalaz gaindiko zerbitzu, jarduera eta/edo jardueretan zornotzarren parte hartzea finantzatzea. Salbuespen gisa, parte-hartzaileen % 50 gutxienez Amorebieta-Etxanokoa denean finantzatu ahal izango dira. Beti ere, udalerrian ezin

## CONVOCATORIA 2024 PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DEL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL COMUNITARIA DEL AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO MEDIANTE RÉGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA

La Ordenanza Reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano y de aquellas normas específicas para las subvenciones en materia de Bienestar Social establecen las Bases Reguladoras de esta área, habiendo sido publicadas en el BOB nº 149 del 6 de agosto de 2008.

### PRIMERO: OBJETO Y ÁMBITO DE ACTUACIÓN

La presente convocatoria tiene por objeto la concesión de subvenciones a aquellas entidades que desarrollan sus proyectos en el ámbito de la acción social, cuya finalidad es la promoción de la autonomía personal y prevenir y atender situaciones de dependencia, desprotección, exclusión y situaciones de emergencia, o actúen desde políticas trasversales de igualdad, interculturalidad, diversidad funcional, diversidad generacional o solidaridad.

Cada entidad solamente podrá solicitar un único proyecto y las actuaciones incluidas en el mismo podrán ser:

- Actividades vinculadas al objeto de la convocatoria.
- Estudios e investigaciones.
- Proyectos de sensibilización y concienciación ciudadana.

Las actividades y los proyectos de sensibilización y concienciación, deberán desarrollarse en el municipio de Amorebieta-Etxano y el objeto de los estudios e investigaciones deberá versar sobre la realidad social Amorebieta-Etxano y/o las necesidades sociales de los y las zornotzarras.

Serán objeto de subvención los gastos directamente vinculados al proyecto específico presentado.

Los gastos indirectos o gastos de mantenimiento ordinarios de la entidad podrán imputarse con un límite máximo del 10% del importe total del proyecto: personal (nominas, seguridad social, seguros, dietas…) y gasto corriente (alquiler de local, limpieza, suministros…).

No es objeto de la presente convocatoria financiar la participación de Zornotzarras en servicios, actuaciones y/o actividades supramunicipales ofrecidas fuera del municipio. Excepcionalmente, podrán financiarse aquellas en las que, al menos, el 50% de las personas participantes sea de Amorebieta-Etxano y resulte imposible prestarse en el municipio.

MIKEL KEREXETA KORTABARRIA (1. guztira 1)
Gizarte Ekintzako Arduraduna
Sinaduraren data: 21/03/2024
HASH: d6b5f91e6...

Baliozkotze kod.: 3F4NL5KZELKD73XJ3MJ4RK...
Egiaztapena: http://amorebieta-etxano.sedelectronica.es/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 6

bada gauzatu ekintza.

## BIGARRENA: ERAKUNDE HARTZAILEAK

Honako hauek izango dira dirulaguntzen hartzaileak:

- Irabazi-asmorik ez duten erakunde, elkarte eta fundazioak, baldin eta dagokien erregistroan inskribatuta badaude, egoitza Bizkaian badute eta beren jarduerak Amorebieta-Etxanoko udalerrian egiten badituzte edo gizarte ekintzaren eremuan Amorebieta-Etxanoko biztanleei zuzenduta badaude.
- Pertsona fisikoak, norberaren ordezkari gisa edo noizean behin talde baten ordezkari gisa, irabazi asmorik gabe eta udalerrian erroldatuta.

## HIRUGARRENA: DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Deialdi honetara 30.000 euro bideratu dira, 2311 48100 partidaren kontura.

Dirulaguntza emateko gehieneko muga aurkeztutako proiektuaren % 80 izango da, eta aurkeztutako proiektuaren zenbatekoaren % 100 justifikatu beharko da.

Erakunde bakoitzari eman beharreko zenbatekoa zehazteko, erakundeak aurkeztutako proiektuari esleitutako puntuazioa biderkatuko da puntu bakoitzari finkatutako balioarekin (lortutako puntuazioa x puntu bakoitzaren balioa).

Puntu bakoitzerako ezarritako balioa honela lortzen da: deialdiaren aurrekontu osoa zati diruz lagun daitezkeen proiektu edo programa guztiei esleitutako puntuen batura (30.000 €/ guztizko puntuen batura).

## LAUGARRENA: BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Balorazioa 100 puntuko gehieneko puntuazioaren gainean egingo da, eta proiektuek 50 puntuko gutxieneko puntuazioa lortu beharko dute dirulaguntza lortzeko.

Balorazio-irizpideak honako hauek izango dira:
1.- Entitatearen programa/proiektua Amorebieta- Etxanoko zenbat pertsonarengana iristen den (gehienez 25 puntu).

- Amorebieta-Etxanon garatutako proiektua edo parte-hartzaile guztiak zornotzarrak dira, 25 puntu.
- Proiektuaren parte-hartzaileen % 76 baino gehiago zornotzarrak dira, 20 puntu.
- Proiektuaren parte-hartzaileen % 50 eta % 75 artean zornotzarrak dira, 15 puntu.

2.- Beste erakunde batzuen beste finantzabide batzuetara jotzeko zailtasuna (gehienez 10 puntu).
Beste erakunde publiko batzuek finantzatzeko aukera

## SEGUNDO: ENTIDADES DESTINATARIAS

Serán destinatarias de estas subvenciones:

- Las entidades, asociaciones y fundaciones, que carezcan de ánimo de lucro, que estén inscritas en el registro correspondiente, con sede en Bizkaia y que desarrollen sus actividades en el municipio de Amorebieta-Etxano o dirigidas directamente a la población de Amorebieta-Etxano en el ámbito de la acción social.
- Las personas físicas en representación particular o de un grupo por iniciativa de carácter esporádico, sin finalidad de lucro y empadronadas en el municipio.

## TERCERO: CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN

La cuantía destinada a la presente convocatoria de subvenciones es de 30.000 euros, con cargo a la partida 2311 48100.

El límite máximo de concesión será del 80% del proyecto presentado, debiéndose justificar el 100% de la cuantía del proyecto presentado.

La cuantía concreta a conceder a cada entidad vendrá determinada por multiplicar la puntuación adjudicada al proyecto presentado por la entidad con el valor fijado a cada punto (puntuación obtenida X valor de cada punto).

El valor fijado a cada punto se obtiene al dividir el total del presupuesto de la convocatoria entre la suma total de puntos adjudicados a todos los proyectos o programas subvencionables (30.000€ /suma total puntos).

## CUARTO: CRITERIOS DE VALORACIÓN

La valoración se realiza sobre una puntuación máxima de 100 puntos y los proyectos deberán alcanzar una puntuación mínima de 50 puntos para obtener subvención.

Los criterios de valoración serán los siguientes:
1.- Número de personas de Amorebieta-Etxano a las que llegan el programa/proyecto de la entidad (Máximo 25 puntos).

- Proyecto desarrollado íntegramente en Amorebieta-Etxano o todas las personas participantes son zornotzarras, 25 puntos.
- Proyecto en el que más del 76% de las personas participantes son Zornotzarras, 20 puntos.
- Proyecto en el que entre 50% y el 75% de las personas participantes son Zornotzarras, 15 puntos.

2.- Dificultad para acudir a otros medios de financiación de otras instituciones (Máximo 10 puntos).
Se valora la posibilidad de ser financiación por parte de

Balioztatze Kod.: 3FJ6N54XZELKD73XJ3MJ4R2L
Egiaztapena: https://s-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 6

baloratzen da.

3.- Pertsona edo erakunde eskatzaileak Amorebieta-Etxanoko proiekturako dituen baliabide ekonomiko propioak. (Gehienez 10 puntu).
Bazkideen ekarpenak, programaren arabera ordaintzen dituzten zenbatekoak eta beste finantzaketa-iturri batzuk baloratzen dira:

- % 30tik gorako bitarteko propioak, 10 puntu.
- Bitarteko propioak % 20 eta % 30 bitartean, 5 puntu.

4.- Jardueraren eragina gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko (gehienez 5 puntu).
Proiektuaren fase guztietan genero-ikuspegia txertatzea baloratuko da.

5.- Jardueren artean duen lehentasuna (gehienez 10 puntu).
Proiektua erakundearen berezko helburuekin lerrokatzea baloratzen da.

6.- Udalerrian garatu beharreko programaren edo jardueren kopurua eta edukia. (25 puntu).
Jarduerak deialdiaren xedera egokitzen diren eta horien garapenaren kalitatea baloratuko da.

7.- Udalerrian garatu beharreko jardueren kostua (10 puntu).
Jardueren kostua, jasotzaileen kopurua eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna baloratuko da.

8.- Jarduera bi hizkuntza ofizialak erabiliz garatzea. (Gehienez 5 puntu).
Euskara lehentasunez erabiltzea baloratuko da.

- Proiektu osoaren garapenean, komunikazio-hizkuntza euskara da, eta komunikazioa bermatzen da bi hizkuntzetan: 5 puntu.
- Proiektua bi hizkuntza ofizialetan garatuko da: 2 puntu.

**BOSGARRENA: ESKABIDEAK ETA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA INFORMAZIOA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Eskaera Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaio, eta aurrez aurre (pertsona fisikoak bakarrik) aurkeztuko da Amorebieta- Etxanoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuaren sarrera-erregistroan; telematikoki, udalaren web orriaren egoitza elektronikoan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduan, 15 egun balioduneko epean, deialdia argitaratzen denetik hasita. Eredu ofizialean formalizatu beharko da.

otras instituciones públicas.

3.- Medios económicos propios con que cuenta la persona o entidad solicitante, para el proyecto del municipio de Amorebieta-Etxano. (Máximo 10 puntos).
Se valoran las aportaciones de socios y socias, importes que abonen por programa y otras fuentes de financiación:

- Medios propios superiores al 30%, 10 puntos.
- Medios propios entre el 20% y 30%, 5 puntos.

4.- Incidencia de la actividad en la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres (Máximo 5 puntos).
Se valora la incorporación de la perspectiva de género en todas las fases del proyecto.

5.- Prioridad que supone entre sus actividades (Máximo 10 puntos).
Se valora el alineamiento del proyecto con los fines propios de la entidad.

6.- Número y contenido del programa o actividades a desarrollar en el municipio. (25 puntos).
Se valora la adecuación de las actividades al objeto de la convocatoria y la calidad del desarrollo de las mismas.

7.- Coste de las actividades a desarrollar en el municipio. (10 puntos).
Se valora proporcionalidad entre el coste de las actividades, el número de personas destinatarias y el presupuesto presentado.

8.- Desarrollo de la actividad con utilización de ambas lenguas oficiales. (Máximo 5 puntos).
Se valora el uso preferente del euskara.

- El idioma vehicular en el desarrollo de todo el proyecto es el euskara y se garantiza la comunicación en ambos idiomas, 5 puntos.
- El proyecto se desarrolla en ambas lenguas oficiales, 2 puntos.

**QUINTO: LUGAR, PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y DOCUMENTOS E INFORMACIONES QUE DEBEN ACOMPAÑARSE A LA SOLICITUD**

La solicitud, dirigida al Sra. Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento, se presentará presencialmente (solo personas físicas) en el Registro de entrada en el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano; telemáticamente en la sede electrónica de la página web del Ayuntamiento o en la forma prevista en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en el plazo de 15 días hábiles desde la publicación de la convocatoria, formalizándose en el modelo oficial.

Baliozkotze Kod.: 3FJN54XZELKD73X33M4R6XL
Egiaztapena: https://egoitza.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 6

Beharrezko dokumentazioa:

- Eskabide normalizatua, behar bezala beteta. Izapideen eskuliburuko E155 inprimakia.
- Dirulaguntzaren xede den proiektuaren deskripzio-memoria xehatua, gehienez 20 orrialdekoa (A4, alde batera, 1,5 lerroartekoa eta Arial 12 iturria duena). Adierazitako hedadura gainditzen duen memoriaren edukia ez da baloratuko.

Amorebieta-Etxanoko Udalak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden administrazioizapideetarako eskatzen diren parte-hartzaileen datuen gainean.

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Laguntza-eskabideak osatu gabe badaude, edo beharrezko dokumentazioarekin batera aurkezten ez badira, erakunde edo pertsona interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Kasu horretan, Administrazioak eskabide horri buruzko esanbidezko ebazpena eman beharko du, eta ebazpen hori jakinarazi, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. eta 40. artikuluetan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

## SEIGARRENA: IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Izapidetzea

Gizarte Ekintza Komunitario Saileko Zuzendaritzak emango ditu deialdi honetan jasotako laguntzak.

Ebazpena emateko organo eskuduna Dirulaguntzak Emateko Batzordea izango da, eta honako kide hauek izango ditu:

- Batzordeburua: arloko zinegotzia edo haren ordezkoa.
- Hiru kide: arloko teknikaria, idazkaria edo haren ordezkoa, kontu-hartzailea edo haren ordezkoa.

- Idazkaritza: arloko teknikaria.

Documentación necesaria:

- Solicitud normalizada debidamente cumplimentada. Impreso E155 del manual de trámites.
- Memoria descriptiva detallada del proyecto para el que se solicita la subvención, no excederá 20 páginas (A4, a una cara, interlineado 1,5 y con fuente Arial 12). No será objeto de valoración el contenido de la memoria que supere la extensión indicada.

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, y a través de los servicios de interoperabilidad correspondientes, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas participantes requeridos para la tramitación administrativa que obren en poder de la Administración.

Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Ayuntamiento podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Si las solicitudes de ayudas resultaran incompletas, o no fueran acompañadas de la documentación que se precisa, la entidad o persona interesada será requerida para que en el plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si no lo hiciera así, se le entenderá por desistida su petición, estando obligada la administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla de conformidad con lo dispuesto en los artículos 68 y 40 y siguientes, respectivamente, de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

## SEXTO: TRAMITACIÓN Y RESOLUCIÓN

Tramitación

El órgano instructor para la concesión de las ayudas recogidas en esta convocatoria será la Dirección del departamento de Acción Social Comunitaria.

El órgano competente para emitir la resolución será la Comisión de Concesión de Subvenciones que estará formada por los siguientes miembros:

- Presidenta: Concejala del Área o persona que le sustituya.
- Tres vocales: Técnico/a del área, secretaria o persona que le sustituya, Interventor o persona que le sustituya.
- Secretaría: Técnica del área.

Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas por la

Baliozkotze Kod.: 3FJ6N24XZELXD73XJ3MJ4R2XL
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 6

| | |
|---|---|
| Dagokion batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskabideak, eta, irizpen baten bidez, ebazpenproposamen bat egingo dio organo eskudunari. | correspondiente Comisión y, mediante un dictamen, realizará una propuesta de resolución al órgano competente. |
| Ebazpena.<br>Dirulaguntza horiek ebazteko organo eskuduna Alkatea izango da, eta ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua adieraziko dira. | Resolución.<br>El órgano competente para la resolución de estas subvenciones será la Alcaldesa y el plazo máximo para resolver y notificar será de cuatro meses a contar desde el fin del plazo para la presentación de solicitudes. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago. |
| **ZAZPIGARRENA: DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA**<br>Dirulaguntzaren erakunde onuradunek 2025ko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dituzte justifikazio agiriak. | **SEPTIMO: PLAZO PARA LA JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**<br>Las entidades beneficiarias de la subvención tendrán que presentar la documentación justificativa antes del 28 de febrero del 2025. |
| **ZORTZIGARRENA: DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA**<br>Eskatutako proiektuaren % 100 justifikatu beharko da, nahiz eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren dirulaguntza proiektuaren % 80koa izan.<br><br>Dirulaguntza gastua justifikatzeko kontuaren bidez justifikatuko da, gastuaren frogagiriak aurkeztuta.<br><br>Dirulaguntzaren erakunde onuradunak honako hauek aurkeztu beharko ditu:<br>- Justifikazio normalizatua, behar bezala beteta. Izapideen eskuliburuko E173 inprimakia.<br>- Gauzatutako proiektuaren deskripziomemoria xehatua, gehienez 20 orrialdekoa (A4, alde batera, 1,5 lerroartekoa eta Arial 12 iturria duena).<br>- Jarduera guztiak Amorebieta-Etxanon egiten ez badira, Amorebieta-Etxanon erroldatuta dauden parte-hartzaileen izenzerrenda (izena eta bi abizen).<br>- Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten dokumentuak, edo gastu guztien administrazio-eraginkortasuna dutenak. Jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dute, dirulaguntzaren erakunde onuradunaren izenean legez emanak. | **OCTAVO: JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**<br>Se deberá justificar el 100% del proyecto solicitado a pesar de que la subvención del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano haya sido del 80% del proyecto.<br><br>La justificación de la subvención se realizará mediante cuenta justificativa del gasto con aportación de justificantes del gasto.<br><br>La entidad beneficiaria de la subvención deberá aportar:<br>- Justificación normalizada debidamente cumplimentada. Impreso E173 del manual de trámites.<br>- Memoria descriptiva detallada del proyecto realizado, no excederá 20 páginas (A4, a una cara, interlineado 1,5 y con fuente Arial 12).<br>- En el caso de que las actividades no se desarrollen íntegramente en Amorebieta-Etxano, listado nominal (nombre y dos apellidos) de las personas participantes que estén empadronadas en Amorebieta-Etxano.<br>- Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa de todos los gastos. Deberán ser originales o copia compulsada, legalmente expedidas a nombre de la entidad beneficiaria de la subvención. |
| **BEDERATZIGARRENA:** Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. | **NOVENO:** La presente convocatoria entrará en vigor el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia. |

Baliozkotze Kod.: 3FJ6N54XZELKD73XJ3MJ4R2XL
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 6

Baliozkotze Kod.: 3FJ6N54XZELKD73XJ3MJ4R2XL
Egiaztapena: https://e-udala.amorebieta-etxano.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 6